

BARNE ARAUDIA

1. Ikaslea, Bikuña Kiroldegiko instalakuntzetan izena eman eta edozein ikastaroetan parte hartzen duen Abonatua edota Abonatu ez den erabiltzailea da. Urtero jakinaraziko dira Bikuña Kiroldegian eskainiko diren ikastaroak horretarako argitaratuko den katalogoan.
2. Kirol ikastaroak ez dira derrigorrez kirol jakin batean oinarrituak egongo eta beraien programazioa ebolutiboa izango da iraupen jakinik gabe.
3. Bikuña Kiroldegian antolatutako ikastaroak bertan burututako programaketa izango dute eta eskaeraren arabera antolatuko dira.
4. Kirol ikastaroetarako izen emateak Bikuña Kiroldegian edota web gunetik egingo dira.

Izen emateak eta izen berritzeak arautegi hau jarraituko dute:

5. Irailetik abendura barne eta urtarriletik uztaileira barne, izen berritzeak automatikoki egingo dira.
6. Ikastaroan baja emateko dagokion txostena bete beharko da. Baja emateko azken eguna hilabete bakoitzaren 25 izango da. Horrela egiten ez bada, hurrengo hilabeteko tasa ordaintzea derrigorrezkoa izango da.
7. Ikastaroaren tasa ordaintzen ez bada, ikastaroan baja emango zaio eta ezin izango du aurrerantzean berriro izena eman.
8. Ikastaroaren tasaren zorra, ikastaroko lehen egunean sortzen da.
9. Ikastaroaren tasa ez da inolaz ere itzuliko nahiz eta ikaslea klaseetara ez etorri.
10. Legazpiko udalak ikastaroak bertan behera utzi ditzake eskaera nahikoa ez denean.